



Museo eta dorretxeen ibilbidea

Urduña - Amurrio - Laudio



Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



AIARALDEA
HELMUGA PAISAJA DA
EL DESTINO ES EL PAISAJE

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Lehentasunezko jarduketara eremuak, Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarekin
Zonas de Actuación Preferente con la financiación de Gobierno Vasco

**Aiaraldea eta Nerbiogoiena lurraldeek
aberastasun historikoa eta edertasun
naturala modu paregabean uztartzen ditu.**

Ilbilde honek inguruko ondare kulturala ezagutzera gonbidatzen zaitu. Bertako dorretxe bikainak ezagutuko dituzu, Erdi Aroan izandako botere- eta defentsa-historiak kontatzen dituzten egiazko altxor arkitektonikoak, bai eta bertako museoen sarea ere, tradizio, arte eta zapore paregabeak bildu eta zabaltzen dituztenak. Familia leinargien eguneroko bizitzarekin hasi eta estilo artistikoen bilakaerarekin eta tokiko likorearen esentziarekin buka, iraganari begiratzeko leihoa da geldialdi bakoitza, orainarekin konektatzen duena. Murgil zaitez bidaia honetan eta liluratuta utziko zaitu Nerbiogoiena paregabe egiten duen ondareak!





Urduña/Orduña

1

Amurrio

6

5

Artziniega

Orozko

Laudio/Llodio

7

8

1 Urduñako Museoa



Andra Mari Plaza, 1 –URDUÑA/ORDUÑA–
www.ordunahiria.org



Bisita
gidatuak



Irisgarria





Urduñako Museo Etnografikoak eskulan-ofizioak eta hiri-historia ditu ardatz, eta tratamendu berezia ematen die merkataritzari eta jarduera ekonomikoari, haiek markatu baitzuten bere garapena. Bilduma iraunkorreko 12 aretotan biltzen ditu azken mendeetako Urduñako gremio eta jarduera adierazgarriak. Era berean, aldi baterako erakusketen eta kultura-jardueren programa zabala eskaintzen du, hiriko kultura-bizitza dinamizatzeko. 3 solairu eta 1.200 m² ditu, eta udalarena bada ere, Hamaika Kale boluntario-elkarteak kudeatzen du.



Bilduma iraunkorra osatzen duten objektu eta pieza guztiak Urduñari lotutako pertsonen laga edo emandakoak dira, eta boluntarioek kudeatzen eta dinamizatzen dute museoa. Horregatik irudi hori, hainbat esku, eskuzabal eta kolaboratzaile, Museoa sostengatzen.



2 Zaldivar etxea



Zaldivar etxea 1689an aipatu zen lehen aldiz, Juan Díaz Pimienta jauna Calatravako Ordenan sartzeko prozesuan jauregira bisita egin zenean. Jauregi hori Juan de Zaldivar jaunarena izan zitekeen; hark Urduñako elizan kapera bat erosi zuen 1619an. Gaur egun, etxeak duen gauzarik deigarriena harlanduzko kantoï biribilduak dira, ukitu horri eutsi egin baitzaio eraikinean berritze-lan handiak egin izan diren arren.

Jauregia hesiz inguratua zegoen, arku formako atearekin. Zaldivartarren armarrria ageri zen atean, eta oraindik ere xehetasun hori ikus daiteke gertuko eraikin baten kanpoko horman.

Tertanga auzoa –AMURRIO–




Eliza



Bolatokî
zaharra



Ibilbideak



El Puenteko gotorretxea 3



Gotiko berantiarreko estilo errenazentista du dorretxe honek (1500. urtearen inguruan eraiki zuten), eta nekazaritza eta abeltzaintzako funtzioak eta etxebizitza-erabilera uztartzen ditu. Bandokideen dorreak imitatzen ditu diseinuak, baina horma arinagoak ditu eta fatxada guztietan leihoak, geletara argia sartzeko. Hiru solairu eta lau isurkiko estalkia ditu. Hasieran, solairu bakoitzerako sarbide independenteak zituen eraikinak, baina gero barne-eskailera bat egin zuten haien ordez. 1781ean egindako berritze-lan batean balkoiak egin zizkieten eta eraikina modernizatu zuten. XIV. mendean sortu zela uste den arren, badirudi geroagokoa dela eraikina, Urduñan interesak zituen landa-eremuko pertsona ospetsu batekin lotua.

Bandokideen dorreen antza pixka bat badu, baina aspaldi amaitu ziren bandoen arteko borrokak, eta ez da haien parera iristen; izan ere, haiek altuera handiagoa behar zuten, eta, horrenbestez, horma lodiagoak behar zituzten beheko aldean, metrotik gorakoak eta bi metroko zabaleratik gertuago.



Delika auzoa –AMURRIO–



Parking



Ibilbideak



Eliza



Haurren
jolastokia



Taberna

4 Artomaña dorretxea



Dorre honek itxura sendo eta uniformea du, eta ia ukitu ere ez da egin urteen joanean.

Inguruko antzinako gotorretxeen adibide garbia da eraikin hau, eta bertan bizi izan ziren familien iragan militarra ekartzen digu gogora bere egiturak. Eraikinaren sendotasunak eta leiho gutxi izateak erakusten digute defentsa-funtzioa izan zuela iraganean.

Ez dakigu ziur dorre honen jatorria zein den eta zer-nolako bilakaera historikoa izan duen. Bertan egindako azterketa arkeologikoaren ondorioz, badakigu xv. mendearen bigarren erdian eraiki zutela. Dorrea 1859an saldu zuten eta salerosketaren dokumentuan adierazten da orduan hutsik zegoela dorrearen barrualdea.

Artomaña auzoa —AMURRIO—



Parking



Haurren
jolasokia



Taberna



Eliza



Ibilbideak



Mariaka dorrea 5

Mariaka dorrea Amurrioko eraikin zibil zaharrena da gaur egun. Uste denez, XIII. mendeko gotorretxe baten gainean eraiki zuten, baina gaur egun ikusten dugunak Behe Erdi Aroko jauregi baten estiloa du, XV. eta XVI. mendeetakoa, defentsa-dorre batena baino gehiago. Mariaka dorrearen aipamena 1095. urtean ageri da lehen aldiz dokumentuetan, Naiarako Gotzainak Aiarako Eskualdearekin akordio bat sinatu zuenean, eta duen garrantzi historikoaren ideia bat ematen digu horrek.



Bertako hainbat kondairarekin lotua dago Mariaka dorrea, Aiarako Erraldoiarekin, besteak beste. Mitoaren arabera, tamaina eta indar handiko erraldoi hark eskualdeko lurak babesten omen zituen dorretxetik, haranak zainduz eta baserritarrek inbaditzaileengandik edo mehatxuetatik defendatuz. Dorre hau inguruko eraikin nabarmenetakoa da, eta erraldoiaren laguntzaz eraiki omen zuten, haren indarrari esker, egitura handiak eraiki ahal izan baitzituzten. Dorrearen eta erraldoiaren arteko lotura horrek tokiko folkloreak parte izaten jarraitzen du, historiaren, arkitekturaren eta Aiarako kondairen arteko lotura nabarmenduz.

Orue kalea —AMURRIO—



Sarbidea
oinez

⑥ Acha Likore Museoa



Maskuribai, 4 —AMURRIO—
www.destileriasacha.com



Parking
pribatua



Bisita
gidatuak





Likorearen Museoa Acha destilategian bertan dago. Museoa fabrikazio-prozesuak ezagutu ahal izango dituzu, bai eta ia bi mendez historiaren parte izan den enpresa horri lotutako bitxikeria batzuk ere.

Aukera paregabea da likoreen ekoizpenaren historian zehar ibilbidea egiteko, likore horiek modu naturalean egiteko metodoak (hartzidura, destilazioa, beratzea, ontzea...) ezagutzeko, xx. mendearen hasieran erabiltzen ziren upelak ikusteko, eta kontabilitate-liburuak, publizitate-materiala eta askoz gehiago miatzeko.



1831n sortu zuten, eta 5 belaunaldiren ondoren, Europako familia-enpresa zaharrenetako bat da eta estatuko zaharrena.

7 Orozkoko Museo Etnografikoa



Plaza Zubiaur —OROZKO—
www.orozkomuseoa.eus



Doan



Bisita
gidatuak



Irisgarria



Parking



Orozkoko Museo Etnografikoa Legorburu jauregi-etxean dago, eta hiru solairu ditu. Solairu horietako bakoitzean gai bat dago ikusgai: haraneko ondare historikoa, Orozkoko bizimodu tradizionala eta Gorbeaiako goi-lurretako biztanleak.

Zeharka, eta hiru solairuetan zehar, "Emakumeok" (Mujeres) seriea dugu. Bertan, emakumeek historian zehar izan duten presentziaren eta eginkizunaren interpretazioa egiten da, emakumeen inbisibilizazioan eta haiei esleitutako roletan oinarrituta.



1818an erregistratu zen azkenekoz hartz baten presentzia Gorbeian. Museoan hartz ar heldu baten eskeleto ia osoa dago ikusgai. Animalia hura buruan kolpe handi bat hartu ondoren hil zen, Atxerre inguruko leize batean erorita seguruenik, Itxina mendigunean. Gorpua 60 metroko sakoneran aurkitu zuen Sestaoko Jarduera Espeleologikoen Taldeak (GAES).

8 Ugarte dorrea



Ugarte kalea —AUDIO—

Erdi Aroko arkitekturaren adibide baliotsua da Ugarte dorrea, eta pisu historiko handia du gainera. Ugartetarren jatorrizko etxea izan zen, Behe Erdi Aroan Nerbioi Garaiko familia boteretsu eta nabarmenetakoa. Mendeetan zehar, eskualdeko historia markatu zuten pertsonaia ospetsuen bizitokia izan zen dorre hau. Astobiza, Ziorraga, Berganza, Amurrio, Orozko eta Urkabustaizko ugartetarrek beren leinuaren jatorritzat hartzen zuten dorretxe hau, eta, ondorioz, abizen horren ondorengo askok leku enblematiko horretan dituzte sustraiak.

Ugarte dorreak jatorrizko egiturari eutsi dio iparraldeko eta hegoaldeko fatxadetan, baina beste bi aldeetan eraikin atxikiek inguratzen dute, eta ezkutatu egiten dute dorrearen itxuraren zati bat. Goiko bi solairuak, hirugarrena eta teilatupea, Ugartetarren eta Anuncibaitarren arteko liskarretan dorreak kalteak izan ondoren egin zituzten. Teilatupeko solairua egurrezko eta adreiluzko bilbaduraz eraiki zuten, eta garai hartako eraikuntza-teknika modernoan adibide garbia da, inguruko baserri askotan ikus daitezkeen antzekoak.



Parking



Trena



Hirigunea



Tabernak